



BIZITZAREN ARRASTOEN ISLADA ARANBURUN

'Kaleidoskopioa + 12' erakusketa jarri du Mariano Arsuaga artista tolosarrak, azken 12 urteetako ekarpenarekin »4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-04-18

VIIURTEA 1.679.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

SAUL ROBLES II. ÑAÑARRY RALLYESPRINTEKO ANTOLATZAILEA

«Hemengo zaletuek eta pilotuek rallya berriz antolatzea eskatu dute»

TOLOSALDEA Irurako Ikastolaren alde izango da proba hilaren 25ean; Saul Robles O autoa izango da bertan

ZAILTASUNA «Ibilbidea nahiko azkarra da eta Orendain eta Abaltzisketa artean nahiko tekniko», dio pilotuak »



Rafael Uribarren, Carlos Ormazabal, Shole Martin eta Jokin Azkue, atzo aurkezpenean. R.C.

NATURALDIAK AURTEN HAUSNARKETA BULTZATZEA HELBURU

TOLOSA Natur jardunaldiak atzo hasi eta apirilaren 27an amaituko dira; hitzaldi, erakusketa eta ikus-entzunezkoak izango dira »6



I.TERRADILLOS

JOKIN BILDARRATZ EUDEL-EN LEHENDAKARIA

«Ikuspegi soziala mantenduz arduratsu jokatu behar dugu»

TOLOSALDEA Krisia udaletxeetako hainbat alorretan izaten ari den eragina aztertu du »

Profesional euskaldunen gida erabat berri du UEMAK

TOLOSALDEA Gida honetan azaldu nahi duenak eskaera egin dezake »7

Hodei Trukek kontzertua eskainiko du bihar Musika Eskolan

TOLOSA Torreviejako Lehiaketara eramango duten egitaraua aurkeztuko dute »5

**E** **Elkarrizketa****JOKIN BILDARRATZ** › Eudel-en presidentea eta Tolosako alkatea

Ekonomia » 200 milioi euro itzuli behar izan zituzten Euskal Autonomi Erkidegoko udaletxeek iaz. Aurten aurreikuspenak behetik baina goitik omen doaz berriro ere.

ASIER IMAZ

Eudelen Euskal Herriko hainbat udalerrri elkartzan dira. Erakunde-ko presidentea Jokin Bildarratz (Tolosa, 1963) da. Kapitalismoaren krisia, Europa iparraldeko eraginkortasun eredu, maiatzaren 21eko greba orokorra... izan ditu hizpide.

Udaletxeek zer egin dezakete kapitalismoaren krisiaren aurrean? Egoeraren aurrean Eudel bezala lan metodologia bat sortu genuen hainbat eragilerekin elkarlanean, ondoren udaletxe bakoitzak etxe barnean aplikatu zezan. Metodologia honen inguruan Eusko Jaurlaritzako Lehendakariarekin eta Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiako ahaldu nagusiekin hitz egin genuen. Baita Justizia eta Lan Saileko sailburuarekin ere. Honen baitan, lehen aldiz erakunde guztien arteko talde bat sortu genuen, hila-betean behin biltzen dena. Bertan, Foru Aldundietako eta Gobernu-ko kide eta arduradun ezberdinekin batera teknikariak biltzen dira, ez baita lan talde politikoa, tekniko baizik.

Zein izango litzateke talde horren helburu nagusia?

Enplegua, gizarte zerbitzuak... ikuspegi ezberdinetatik hartzen ditu kontutan. Talde honen helburu nagusia, Erkide Autonomikoan egiten diren politika publikoak, enplegu eta gizarte ikuspegitik koordinatuta egotea izango litzateke. **Udaletxeei zuzendutako lan metodologiari itzuliz, praktikan nola aplikatu beharko litzateke?**

Bi atal aipatu behar dira. Alde batetik barnera begirako hausnarketa bat egingo litzateke: Udaletxe bakoitzak zer egin dezake bere etxean? Hau norberak egin beharreko ariketa bat da, baina uiltzeko Tolosan egin duguna jarriko dut adibide bezala. Tolosan lantalde bat sortu dugu, bi astez behin biltzen dena. Talde honek udaletxearen kontsumo energetikoa, telefonia gastuak, paperaren kontsumoa... aztertzen ditu gastu korrientea deiturikoa gutxitzearen helburuarekin.

Lan metodologia honen bigarren atala edo, zein izango litzateke?

Bigarren arloa gizarte zerbitzuei eta enpleguari loturik erabaki edo politika eraginkorrek bultzatzea izango litzateke. Eskualdean adibidez ia udaletxe guztiak Tolosaldea Garatzen gaude batuta. Hor hartzen ditugu edo hartzen ari gara ekonomia honen inguruan



INIGO TERRADILLOS

«Arduratsu jokatu behar dugu, beti ere ikuspegi soziala mantenduz»

hainbat erabaki eraginkor. Gero badaude beste hainbat neurri, oso garrantzitsuak. Izan ere estuasiun une hauetan ezinbestekoa dugu inbertsio plan bati aurre egitea.

Krisitik irteteko non gauden, udaletxeak non dauden, kokatzea garrantzitsua izango da.

Erkide Autonomikoan hainbat faktore kontuan hartuta egiten dira aurreikuspenak. Hauek kupa, kontzertua, koefiziente bertikalak, horizontalak, finantza kontseilua eta abar dira. Aurreikuspen horien baitan, aldundi bakoitzak bere lurraldeko udaletxeei diru kopuru bat ematen diete: ez baldintzatutako finantziarioa deitzen horri. Diru hori jasotzen duzunean, gero zuk ikusten duzu non gastatu. Estatuko beste udaletxeekin alderatuz, hiru aldiz errekurso gehiago edukitzen ditugu guk, alde horretatik beraz ondo gaude. Baina 2008. urtean Erkide

Autonomikoko udaletxeek Aldundiei 200 milioi euro itzuli behar izan dizkiete.

Zergatik?

Aurreikuspenak ekonomiaren hazkunde garaian egin ziren eta ondoren errealtatek urrungelditu dira. 2009an ere antzeko kasuan egon gintezke. Guk hau nola ikusten dugu? Arduraz, baina baita zeregiri handiarekin ere. 2008an egin genituen inbertsioak adibidez mantentzea lortu dugu. Gizarte ikuspegi batetik, argi dugu aurrerakuntzak mantendu egin behar ditugula. Egoeraren aurrean arduratsu jokatu behar dugu, ikuspegi soziala mantenduz eta beste arloak moldatuz, urte amaierara iritsi ahal izateko.

Krisiaren aurrean Europa iparraldeko ereduari irtenbidea aurkitu duenik izan da.

Edozein erakunde hiru elementu eduki behar ditu kontuan bere po-

litikak aurrera eramaterakoan: nortasuna, eraginkortasuna eta demokrazia. Europa iparraldean eraginkortasunari garrantzi handia ematen diote, biztanle bakoitzak zerbitzu hobek izan ditzan. Europa iparraldean identitateak edo nortasunak ez dauka horrenbesteko garrantzia. Euskal Herriaren herri bakoitzaren nortasunak, idiosinkrasiak edo identitateak pisu handia dauka. Hausnarketa egin beharra daukagu eta hasieran aipatutako hiru elementuen arteko oreka bilatu, bai demokrazia eta bai eraginkortasun kontzeptuak kontuan hartuz.

Kudeaketa motaren aldaketa izango litzateke.

Sinergia ariketa bat izango litzateke. Hainbat udaletxe bakarka eman ezin dituen zerbitzuak nola amankomunatu. Zaborrekin esperientzia badugu adibidez. Tolosaldeko udalerriek gure manko-

munitatea egin dugu, horri esker enpresa batekin zonalde osoa, bailara osoa, kubritzen dugu eta zonalde osoko zaborrak biltzen ditugu. Zergatik? Tolosak agian bakarrik egin zezakeen, baina agian beste herri txiki batek bakarrik ezingo luke egin. Nolabait guztion mesederako egin dugu kasu honetan batuketara, eraginkortasuna bilatuz.

Maiatzaren 21ean greba orokorrera deitu dute sindikatu aber-tzaileek. Udaletan, lantegietan, ... eragina edukiko du ziurrenik.

Ziurrenik bai. Lantegi askotan ematen ari dira EREk, negoziazioak... baina lantegi gehienetan langileek badute egoeraren berri. Orduan, ez dut uste une honetan greba bat egiteak horri irtenbidea emango dionik, guztiz aurkakoa. Hainbat jende oso estu dago eta egun bateko soldata ez edukitzea egoera konplexu honetan... ez dakit unea den. Nire ustez beste era batetako lana gehiago egin behar da: guztion artean harremanak sakondu, elkarren arteko konfiantza landu, irtenbideak pixkanaka bilatzen joateko. Ez dut uste greba orokor bat irtenbidea izango denik.

Tolosako alkatea ere bazara. Krisia hor ere agendan edukiko duzu.

Hiru ikuspegi kontuan hartuta, udaletxe guztiok batera funtzionatzen ari gara, Tolosaldea Garatzen elementu komun bezala edukiz. Alde batetik lurzoru berriak sortuz; Appattan adibidez bigarren fasean eta hirugarren fasean gabilta, hori ahalbideratuz. Bestalde, langabezia gelditzen denari formazioa, orientazioa, laguntza emanaz. Urrik otsailera 289 pertsona formatu ditugu: administra-

«Egoeraren aurrean Eudel bezala lan metodologia bat sortu genuen»

«Ez dut uste une honetan greba bat egiteak irtenbidea ekarriko duenik»

zioan, mekanikan, soldaduran, informatikan... Hirugarren elementu bezala, Liberrri aipatu behar da. Zer da Liberrri? Erakunde publikoaren zein pribatuaren artean osatu dugun taldea da Liberrri. Nolabait langileei eta enpresei ere formazio bat emateko lan egiten duen taldea, adibidez finantziarioaren inguruan zein aukera dituzten etabar. Liberrrien inguruan institutu bat ere sortu nahi dugu: gazteei proiektu berrietarako aukerak emateko, esperientzia berriak landu nahi dituenari laguntzeko... Hauek izango lirateke jorratzen ari garen hiru atalak, baina ez Tolosan bakarrik, eskualde guztian. Edozein alderdi politikoko dagoela ere.

E Elkarrizketa

SAUL ROBLES II. Nafarri Rallyesprinteko antolatzailea

Zizurkil Irurako Ikastolak antolatzen duen II. Nafarri Rallyesprinteko antolatzaile lanetan ari da Saul Robles, beste batzurekin batera; bera izango da ere O autoa.

«Pilotuek eta hemengo zaletuek rallya berriro antolatzea eskatu dute»

IMANOL GARCIA

Iaz antolatzaile izateaz gain, Saul Roblesek (Zizurkil, 1981) parte hartu zuen Nafarri Rallyesprintean pilotu bezala. Irurako Ikastolak antolatzen duen eta Hondarribiako Sardara motor elkarte laguntzaile den proba honen bigarren aldia izango da hilaren 25ean jokatuko dena. Beste hainbat txapelketaz gain, puntuagarria da Euskadiko Txapelketarako eta aurten ere Nafarroako Txapelketarako.

Zein izango da zure ardura aurtengo rallyan?

Antolatzaile bezala ari naiz eta probaren egunean O autoa izango naiz. O autoaren ardura da ibilbidea ondo dagoela esatea. Guk ematen dugu proba hasteko azken baita. Aurretik pasatzen dira O hirukoitza autoa, O bikoitza autoa eta ni izango naiz azken autoa. Nik esaten badut zerbaitek gazki dagoela, edo jendea gaizki jarrita edo autoaren bat gaizki aparkatuta, ez da proba hasten.

Abiadura handian joango zara. Zer auto eraman behar duzu?

Ia rallyko kotxeen abiaduran joan gara, baina gauzak nola dauden hadi egonez. Inigo Iñurrita etorriko danirekin. Nire kotxea eramango dut, Renault Megane Sport bat.

Iaz ere antolatzaile moduan izan zinen eta aurten ere. Nolatan?

Irurako Ikastolak deitu zidan iaz. Bazekiten mundu honetan ibiltzen naizela eta kilometroen ekitaldien baitan zerbaite antolatzerik bazegoen galdetu zidaten. Prest nengoela esan nien eta Sardara motor elkartearekin harremanetan jarri nintzen eta horrela jarri genuen martxan. Aurreko urtean ondo atera zenez eta jendeak eskatu egin duenez berriro ere egiteko, aurten ere animatu egin gara.

Esan dizun bezala, iaz arrakastatsua izan zen rallya.

Oso ondo atera zen. Eguraldi ona egin zuen eta ea ere aurten eguraldi berdina daukagun.

Eguraldiak eragin handia du horrelako probetan, ezta?

Bai ikusteko eta bai gidatzeko ere askoz hobeto lehorra badago. Gidariarentzat garrantzitsua da lehorra egotea. Eguraldi txarra egiten badu, Orendain aldean lainoa sartzen da eta nahiko itxia geratzen da.

Pilotuek beraiek eskatu dute berriz nahi zutelako rallya egitea.

Bai, gustatu egin zitzaion ibilbidea. Zaletuek ere eskatu egin dute berriz egitea. Hemendik ez dago bes-



Goiko argazkian, Saul Robles bere autoarekin, O autoa izango dena, eta azpian iazko rallyan parte hartzen. I.G./HITZA

Eta ikusleak non kokatzen dira, batez ere?

Lehenengo paellan jende asko gelditzen da. Abaltzisketako herriaren erditik pasatzen da ibilbidea eta hor ere jende asko izaten da. Gero tarte azkarrak oso interesgarriak dira. Hor ikusten duzu zein datorren azkar eta zein motelago. Hor asko nabaritzen da. Bestalde, ikusleei gogoratu behar zaie komisarioei kasu egin behar zaiela lekua hartzerakoan.

Zein daude faboritoen artean?

Joseba Zapiain (Peugeot 206), aurten liderra doa sailkapenean; Gorka Apalantza (Subaru), iazko irabazlea; Santi Artetxe (Peugeot

Ibilbidea nahiko azkarra da, baina tekniko ere, Orendainetik Abaltzisketara batez ere

Faboritoak dira Joseba Zapiain, Gorka Apalantza, Santi Artetxe eta Ramon Apalantza

307) eta Ramon Apalantza (Mitsubishi). 80 auto inguru izatea espero dugu eta gidari onenak izango dira. Eskualdetik parte hartuko dute Aaron Robles zizurkildarrak, Markos Landa ibartarrak eta Txema Uzquidun autoetarrak.

Iazko ibilbide berdina izango da, ezta?

Bai, Alegiatik Amezketara izango da. Lehenengo autoa 15:30ean aterako da. Goizean Alegiako eskola inguruan izango dira autoen egiaztaezak. Sari banaketa, berriz, 20:00etan izango da Amezketako plazan.

Aurten ez zara ari parte hartzen rallyetan. Eta datorren urterako?

Aurten ez gara atera rallyetan ez digulako denborarik eman dena prestatzeko. Datorren urtera begira lanean gaude proiektu berri batekin. Gure asmoa auto on batekin lehiatzea da. Eskualdeko enprestartara jotzen ari gara proiektua aurrera atera ahal izateko, babesleak izatea ezinbestekoa baita rallyetan parte hartzeko. Aurreko postuetan ibiltzeko auto on bat behar da eta horren bila ari gara. Nitaz aparte beste hiru lagun daude proiektu horretan lanean.

te rallyrik. Hondarribian, Azpeitian eta Gabirian egiten da, baina Tolosaldean ez dago. Horregatik, hemengo zaletuek eskatzen dute. Guretzako lan handia da hau prestatzea, baina merezi du.

Pilotu bezala, nola deskribatuko zenuke Nafarri Rallyesprinta?

Ibilbidea azkarra da, baina tekniko da ere. Tarte azkarrak ditu eta errepidea nahiko estua da. Lehenengo parte nahiko erraza da. Paila bat dauka hasieran, nahiko erraza. Gero Orendainetik Abaltzisketara nahiko azkarra da eta oso tekniko.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ARAMBURU

Alokatzeko (Tolosa).
Etxeak. Allirin eta San Frantziskon.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak,
San Frantziskon, Araba etorbidean, Iurren eta Batxilerr Zaldibian, erosteko aukerarekin.
Salgai (Tolosa). Etxebizitzak. Kale Nagusian, Araba etorbidean, Batxilerr Zaldibian.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Larramendin, igogailuarekin. Eraikuntza berria, Aukera ona.
Salgai (Legorreta eta Irurari).
Etxebizitza eraberritzeko, Legorretan 32.000.000 pztia eta Irurari 20.000.000 pztia.
Salgai (Irurari).
Etxebizitza sartzeko moduan. Eskaintza ona.
Salgai. Garaje itxiak eta irekiak.
Amarotzen (Tolosa) eta Ibaran.
943 65 17 13 / 677 46 09 16



Labirintoak seriea Arsuagaren lan berrietako bat da.



49 eskaloï lana, Don Herbert-ek Artelekuko tailerrean estanpatua. Michel paper gainean 14 zinc plantxa erabili ziren.



Titirijai 08 jaialdian estreinatua zen Lorezaina antzezlanean erabilitako eszenografiaren erreproduktzioa.



Ate ezkutua serieko lan bat.

Bizitzak utzitako arrastoen islada

Kultura » Mariano Arsuagaren azken hamabi urteetako ekarpena dago ikusgai Aranburu jauregian, 'Kaleidoskopioa + 12' erakusketan.

INIGO TERRADILLOS

Ezaguna da Mariano Arsuagaren lana Tolosan, hainbatetan erakutsi baititu bere koadroak jaioterrian. Oraingoan, *Kaleidoskopioa + 12* erakusketa zabaldu du Aranburu jauregian. Bertan, azken urteetako bere lana jarri du, eta maiatzaren 16ra arte izango da ikusgai, ohi bezala, 17:30etik 20:30era, jaieguna eta astelehena izan ezik.

«Pinturaren bide amaigabeko»

hirugarren geldialdia egin du Arsuagak erakusketa honekin Aranburun. Baina, bidaia guztietatik onena dela dio: «angelu ezberdinetatik behatzeko eta erakusteko, azken etapa honetako alderdiak, txingarrak, denbora honetako hondarrak, azken batean garrantzitsua denaren arrastoak, bizitza», dio egileak.

Kaleidoskopio batekin aldatzen du erakusketa tolosarrak;

«mundua ezagutzera naramaten materialen puskatutako ispiluen zatiek isladatzen dutenaren ikuspuntu askotako bat, erralitatea, ametsak, baita nire buruaz ezagutzen ez dudana ere».

Azken 12 urteetako lanak

Bizitza izan ziren paperak-eko eguneroko orrialdeetatik hasi eta egin berri dituen bi pintura-serietara, hainbat lan desberdin hartzen ditu erakusketak. *Labirintoak* da pintura serie horietako baten izena; «zalantzak dituztene aberri» bezala definitzen du berak, «nire geografian errejistroa, barnealdeko paisaia». *Ate ezkutua* da bes-

te pintura seriearen izena «Pintura ezagutza eta emoziorako atea denaren baieztapena da». Bi pintura serieak mihise handietako lanaren emaitzez nahiz blokeetako marrazki txikiez osatu nahi izan du, «josten diren bi izenburu, ahoz eman ezin den pinturaren definizioa agortzen ez duten bi ideia baitira».

Halaber, arkitekturaren eskuhartzeetarako eskalan egindako bozetoak, beste lan independente batzuk, eta era berean, tailerreko lan bakartiaren eta lagunarteko konplizitate sortzailearen arteko orekaren bilaketa agertu nahi izan du: «Maria Cuetoren tra-

men erabilera bai eta Laureano Olaetxearekin batera serigrafian inprimatzeko Gureak-en eraikuntzan, bai Don Herbertek Artelekun estanpatutako *49 eskaloï* litografia-edizioan.

Okupgraf-eko Topaketak ibildiko liburuak ere kontsulta daitezke, eta Titirijai 08 jaialdian ikusteko aukera izan zen Lorezaina lanerako Aurelio Vicentek, Maria Cuetok eta Arsuagak berak egin zuten eszenografia lana ere ikusgai dago erakusketan.

Mariano Arsuagak pinturan murgilduta hasi zen artea jorrajaren, eta Aranburukoaz gain, hainbat erakusketa jarriak ditu.

Bihar Hodei Trukek kontzertua eskainiko du Musika Eskolan

Tolosa » Torrevejako Gazte Habanera Lehiaketan aurkeztuko duen egitaraua izango da entzungai, 16:30ean.

ERREDAKZIOA

Hodei Truk abesbatzak Tolosako Eduardo Mocoeroa Musika Eskolako entzundegian kontzertua eskainiko du bihar, 16:30etik aurrera. Hain zuzen ere, datorren astean Torrevejako Gazte Habanera Lehiaketan parte hartuko du Tolosako taldeak eta han aurkeztuko duen egitaraua izango da entzungai biharko kontzertuan.

Abeslari gazteek Torrevejian (Herrialde Katalanak) eskainiko dituzten piezak hauek dira: *Ameriketara joan nintzan*, *Habanera de arroz con leche*, *Larre berrian*, eta *Elruiseñor y la flor*. Hain zuzen ere, Luis San Sebastian klarinete-jotzailearen eta Ana Iparragirre piano-jotzailearen laguntzarekin aurkeztuko dute.



David Azurzaren gidaritzapean, 70 gaztetxo joango dira Torrevejara. HITZA

Euro bat bidaiarako
Hodei Truk Hirukide eta Hodei Truk Samaniego abesbatzek ere

parte hartuko dute lehiaketan. Denbora 70 haur eta gazte, David Azurzaren zuzendaritzapean.

Esan bezala, biharko kontzertua 16.30ean da. Eta sarrera euro batekoa izango da Torrevejako bidaiarako laguntza gisa.

Laburrak

Udalak hautesle-errodako zerrendak jarriko ditu

TOLOSA » Hautesle-errodako zerrendak jendaurrean jarriko ditu Udalak, beheko solairuan, apirilaren 20tik 27ra. Hala, oker egon daitekeen daturen bat zuzendu nahi duen herritarrak orain izango du horretarako aukera. Erreklamazio hori udaletxeko estatistika saillean egin beharko da (3. solairuan) eta NANren, pasaportearren edota gida-baimenaren fotokopia aurkeztu beharko da.

Haurrenganako abusu sexualen aurka, gaur

TOLOSA » Gipuzkoako Abusu Sexualak Jasandakoen Elkarteak (GASJE) haurrenganako abusu sexualen aurkako ekitaldia egingo du gaur Tolosan. Hala, «objektu sexual gisa erabiliak diren eta beldurrarengatik hitz egin ezin duten haurren» egoera salatzeke Triangulon stand bat jarriko dute elkarreko hainbat kidek 12:00etatik 14:00etara bitarte.

Bilera deialdia II. Ñañarri Rallyesprintekoentzat

IRURA » II. Ñañarri Rallyesprinta hilaren 25ean egingo dute eta Irurako Ikastolak antolatzen duen aurten ere. Bilera egingo dute hilaren 20ean, astelehena, Ikastolaren eraikin berrian 19:00etan. Bertara sarreretan egongo direnak eta komisiario bezala lan egingo dutenak deitu ditu antolakuntzak. Bidebategi, Irurako Ikastolatik eskerrak eman dituzte lan hotietan ariko direnei.

Amodiozko Gutunen Lehiaketa abiarazi dute

VILLABONA » Amodiozko Gutunen Lehiaketa antolatu du Villabonako Udalak, azken urteetan bezala. Lanak maiatzaren 13ra arte bidal daitezke honako helbide honetara: Villabonako Udala, Euskara Zerbitzua, Erreboteko Plaza z/g, Villabona, 20150. Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute 1993. urtearen ondoren jaiotakoek.



Batzokiaren aurrean protesta

TOLOSA » Amnistiaren Aldeko Mugimendua elkarretaratzera egin zuen atzo Tolosan. EAJren Batzokiaren aurrean elkartu ziren 50 lagun inguru *Dispersioa hiltzailea* PSOE- PNV errudunak zioen pankarta bate-

kin. Aste gutzian zehar eskualdean hainbat ekimen burutu dituzte sakabanaketa edo dispersio politikak 20 urte bete dituelako. Atzoko ekitaldian politika honen ardura PSOEri eta EAJri leporatu zieten. ASERIMAZ



Presoen eskubideen alde

VILLABONA » Amnistiaren Aldeko Mugimendua sinadura bilketa abiarazi du «presoen eskubideak errespetatu daitezken». Bi bilketa izango dira: bata udaletan mozioa aurkezteko eta bestea legebiltzarrean aurkezteko.

Ostegun arratsaldean dispersioaren aurkako eskualdeko ekitaldia egin zen Villabonako Bedura plazan eta bertan ere ekimen honen aldeko sinadurak emateko aukera izan zen. I. GARCIA



bidali opor hauetako argazkiak!



1. Saria



Aldori landetxean 2 pertsonentzako astebururako egonaldia



2. Saria

Larrea jatetxean bi pertsonentzako otordua

3. Saria

Gorrotxategiren saski berezia: Txokolatzeko txapela, xaxu kaxa, teilak eta zigarratxoak, gurinezko pastak eta Txakolinezko bonboiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

• **P. elektronikoa:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
• **Postaz:** Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzaaldeko HITZAren egoitzetara ekarri

Parte-hartzaile eta boto emaleen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!



Shole Martin, Jokin Azkue, Carlos Ormazabal eta Rafael Uribarren izan ziren Naturaldia jardunaldien aurkezpena egiteko arduradunak. R. CALVO

Hausnarketa bultzatu nahi du aurtengo Naturaldiak

Tolosa » Tolosako natur jardunaldiak atzo hasi eta hilaren 27an amaituko dira; Errenteria, Zarautz eta Chillida Lekun ere izango dira.

REBEKA CALVO

1990. urtean hasi zen Tolosan Naturaldiaren ibilaldia. Natur jardunaldi hauek ingurumenaren eza-gutza eta maitasunaren «zabal-kunde» dute helburu eta jada «gizarteko eta Tolosako ingurumeneko» zati dela azpimarratu zuen Jokin Azkue Tolosako alkateordeak atzo, Donostian egindako aurkezpenan. Azkuek Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatuarekin, Rafael Uribarren Landa Ingurumenaren Garapeneko diputatuarekin eta jardunaldien antolatzaile den Gestonaturako Shole Martinekin batera egin zuen aurkezpena.

Tolosako jardunaldiak atzo hasi ziren eta hilaren 27an amaituko dira, nahiz eta maiatzean Zarautzen eta Errenterian ere izango diren ekintzak. Ekainean, gainera, Hernaniko Chillida Lekun ere izango da ikustekorik. Aurtengo Naturaldiaren egitarauak disziplina desberdinak biltzen ditu; bate-

rik artea, erakusketa bidez, izango da; bestetik hitzaldiak antolatu dituzte eta azkenik, ikus-entzunezkoak ere eskainiko dituzte.

Atzoko inaugurazioan ere artea izan zen nagusi. Naturaldia 09ko

Tolosaldeko bederatzia artistek inauguratu zuten Naturaldia atzo, Kultur Etxean

kartela Tolosaldeko bederatzia artistek egin dute eta artista horiek berak izan ziren jardunaldiak inauguratzeko ardurak izan zutenak. Kultur Etxean bildu ziren horretarako guztiak, Mariano Arsuaga, Idoia Elosegi, Iñaki Epelde, Miren Gonzalez, Nisa Goiburua, Koldobika Jauregi, Maria Cueto, Sükrü Karakus eta Jose Luis Longaron, hain justu, eta Kultur Etxea euren sormenekin bete zuten. Artistak hauek naturako eta inguru-

meneko gaiekin duten harremana eta ardura erakutsi zuten euren lanen bidez eta lan bakoitzaren 50 kopia banatu zituzten, gainera, gerturatzen zirenen artean.

Naturaldia eta artearen bigarren lotura Aranburu Jauregian aurki daiteke. Bertan, atzo inauguratutako Andres Rabago *El Rotor*ren *Agua Tinta* izeneko erakusketa ikus daiteke. Madrilgo marrazkilariak uraren inguruan egindako 47 bineta jarri ditu Aranburun.

Hitzaldiak

Hitzaldieki dagokionez, lehena etzi izango da, hilak 20, 20:00etan Kultur Etxean. Hiru izango dira hizlariak: Xavier Pastor Oceana erakunde Europako zuzendari exekutiboa; Gustavo Jerez Servimendia agentziako kazetaria eta Apia elkarteko lehendakariordea; eta Joaquín Nieto Sustainlabour garapen sostengagarriko nazioarteko lan fundazioko oherrezko lehendakaria. Hitzaldian «hedabideak ingurumen gaiak zabaltzen izaten duten eragina eta erantzukizunaren» inguruko hausnarketa egingo dute Shole Martinen hitzetan.

Hilaren 21ean *Ingurumenaren historia, zatitze baten historia. Ezkertasun baikorra* izeneko hitzaldiaren txanda izango da (20:00etan Kultur Etxean). Hizlaria Xabier Garmendia izango da. Hondarribitarra industria ingeniaria eta aholkularitza enpresa bateko bazkide zuzendaria da. 1991. urtetik 1995.era Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko sailburordea ere izan zen.

Datorren astean hitzaldi ugari izango dira nagusi, baina ikus-entzunezkoak ere eskainiko dituzte

Asteazkenean, hilak 22, emakume bat izango da hizlaria; Mabel Cañada Lakabeko (Nafarroa) komunitatearen sortzaileetarikoa. Cañadak *Femeninoaren udaberri* hitzaldia eskainiko du (20:00etan Kultur Etxean). «Gaur egungo ahots guztien gabezia hitz egingo du, eta okerrago dena, gaur egungo Ama Lurraren aho-ahotsaren gabezia», argitu zuen Martinek. Hurrengo hitzaldia datorren ostiralean izango da, hilak

24 (20:00, Kultur Etxea). Jose Antonio Marina irakasle eta filosofoak eskainiko du eta adimen ekologikoren inguruan hitz egingo du.

Ikus-entzunezkoak

Naturaldiak, gainera, bi dokumental ere eskainiko ditu Leidor antzokian.

Lehena hilaren 23an, osteguna, izango da 10:15ean eta 19:30ean; *Munduaren azkeneko elkartzeak* izena du lanak eta bertan Werner Herzogek naturari buruz egindako gogoetak dira nagusi. «Antartikan bizi diren emakume eta gizonen bizimoduaren inguruko lana da, pertsona hauek bertan bizi dira puntako zientziaren bila daudelako», esan zuen Gestonaturako arduradunak. 19:30eko emanaldian gainera Josu Iztueta bidaiariak zuzendutako solasaldia ere izango da eta bertan Jeronimo Lopez Geologia Zientzietako doktorea eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakaslea izango da hizlaria.

Azken ikus-entzunezkoa hilaren 27an, astelehena, ikusi ahal izango da Leidorren 20:30ean. *Atanarjuat: La leyenda del hombre veloz* lanean Kanadako eremu artiko zabalean inuit herriak makina bat belaunaldietan kontatutako kondaira da nagusi. Lana eskimalen hizkuntzan egin zuten eta aktore guztiak ere inuitak dira.

Naturaldia Gipuzkoan

Naturaldiak urtero egin ohi duen moduan Gipuzkoako beste herri batzuk ere bisitatuko ditu. Batetik, Errenterian izango da maiatzaren 7an eta bertan Raul Castrok, Azti-Tecnaliako Itsas Ikerketa Sailko kideak, *Oarsoaldea: itsasbazterreko bidegurutzetako* hitzaldia eskainiko du (19:00, Reina aretoa). Castro Zarautzen ere izango da maiatzaren 14an eta bertan *Zarautz: Gipuzkoako itsasbazterreko kudeazko talaiaz* hitz egingo du (19:00, Udaletxeako batzar aretoa).

Naturaldia 09 Hernaniko Chillida Lekun amaituko da ekainaren 13an (19:30). Bertan Luis Rojas Marcos izango da solasaldiaren protagonista. Rojas Marcos psikiatriko irakaslea da New Yorkeko Unibertsitatean eta hiri hartako Medikuntza Akademiako eta Psikiatriako Estatubatuar Elkarteak kidea da, beste kargu batzuren artean. AEBetako zientzia aldizkarietan artikulugari idazten ditu.

Hilberria

CONCEPCION KORTAZAR GAZTAÑAGA

(Esteban Azurmendiren alarguna)

Atzo hil zen, 95 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere anima zuzendaria: Jose Luis Agirretxe; seme-alabak: Patxi, Esteban eta Mertxe Aldasoro, Rosario eta Juanjo Gorosabel, Joakin eta Dolores Ezizola, Axun (?), Lurdes eta Antton Lopetegui; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, bilobak, birlubak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara-elizkizunera. Eskerrik asko guztiok aldeaz aurretik.

Helbidea: Zabale baserria.

Oharra: Gorpua Beasaingo Goierrri Beilatokian egongo da.



SEGURA
2009ko apirilaren 18a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Gidan dauden profesionalen kopurua bost aldiz biderkatu da. 35 lanbideetako elkargo askotara jo dute. HITZA

UEMAk profesional euskaldunen gida berri du

Euskara » Gidan azaltzeko eskaera egin behar da eta horretarako, zerbitzua euskaraz eskaintzea eskatzen da.

ERREDAKZIOA

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK, profesional euskaldunen gida erabat berri du. Euskaraz bizi nahi duten udal-lei eta herritarrei begira, tresnak, bitartekoak, baliabideak eta beste-lakoak eskaintzen ditu UEMAREN Profesional Euskaldunen gidak, Internet bidez.

Gida orain urte batzuk egin zen, baina «orain osaketa lan handia egin da». Era horretara, agertzen diren profesionalen kopurua bost bider handiagoa da. Sei hilabeteko

epean Euskal Herriko 35 bat lanbideetako 135 elkargo profesionalengana jo izan da informazio eske. Horretaz gain, 25 udalerritako enprekin harremanetan jarri da UEMA, eta Bai Euskarari Ziurtargiria dutenengana ere jo izan da, zerbitzua edo zerbitzua eta lana euskaraz eskaintzen dutenengana, hain zuzen.

Izena ematearekin nahikoa

Horrela, gaur egun, 306 dira zerbitzua ahoz eta idatziz euskaraz eskaini eta gidan izena eman duten denetarik profesional eta enpresak. Besteak beste, hauek dira aurkitu daitezkeen profesionalak: abokatuak, arkitektoak, arotzak, diseinugileak, fisioterapeutak, instalatzaileak, ingeniariak, iturginak, itzultzaileak, podologoak eta psikologoak.

Nahikoa da izena ematea gida honetan parte hartu ahal izateko. Ahozko eta idatzizko zerbitzua (fakturak, albaranak, aurrekontuak...) euskaraz eskaintzea baino ez da eskatzen. Gida kontsultatzeko zein izena emateko, UEMAREN webgunera jo behar da, www.uma.org helbidean, *Profesional euskaldunak* izeneko atalera.

UEMAko udaletako herritarrei ez ezik, gainerako herritar guztiak ere eskaintzen zaie tresna da, euskaraz bizitzeari bai esaten jarraitu ahal izateko, modu zehatz eta praktikoa. Edozein zerbitzua jasotzeko zein bilatzeko Internet gero etagehiago erabiltzen den honetan, eskurako tresna praktikoa, baliagarria eta eguneratua dugu euskaldunok profesionalen gida honekin.

Udaletxearen aurrealdea hilabete barru konponduko dute

Baliarrain » 16.106 euro dute eraikineko harriak hobe eusteko eta hura garbitzeko; obrak maiatzean hasiko dituzte.

ERREDAKZIOA

Hemendik hilabete batera gutxi, gorabehera, Baliarraingo udaletxearen aurrealdea konponduko dute. Honetarako, 16.106 euro dute, Espainiako Gobernuak emandakoa, hain zuzen.

Martzelino Dorransoro alkateak azaldu duen bezala, «harria dauka udaletxearen aurrealdean eta salitrearekin —gatzarekin— altxatu egin da». Bi gauza egingo dituzte, alde batetik, garbitu «zikina baita-



Konponketak berandu jota ekainaren erdialdean hasiko dituzte. N. URBIZU

go» eta bestetik, «harria hobeto heldu, harri batzuk erorita baitaude. Harri batzuk harrotzen ari direnez, behar bezalako tratamen-

dua egingo zaio». Obra honek, guztira hilabete inguru iraungo du; beraz, udarako dagoeneko bukatuta izango da.

Ropon-Leunda Euskadiko pilota txapelkunak sari gisa, Mexikon izan dira

Amezketak » 22 urte azpikoekin artean irabazle izanik joan dira eta bertan 10 egunetan 5 pilota partida «gogor» jokatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Zazpi-Iturri pilota eskolako bi pilotarik sari ederra jaso dute, Euskadiko Pilota Txapelketako txapela irabazteagatik, 22 urte azpikoekin, Añorgakoekin kontra irabazi ondoren. Ropon-Leunda bikoteaz ari gara. Mexikon izan dira 10 egun inguruz, eta pilotan aritu dira bertan, baina turismo pixka bat egiteko aukera ere izan dute.

Bost partida jokatu dituzte bertakoekin aurka guztira, eta diotenez, «oso maila onekoak dira bertako pilotariak, oso gogorrak». Egia esan, eskuak txikituta dituzte bi euskaldunek. Eta frontoietako giroa, «izugarria; herri txikiak izanik ere, frontoia lepo zeuden, ikusle pila bat».

Orokorrean, «oso esperientzia polita eta ona izan da guretzat». Atentzioa deitu dienen artean, bertako giroa izan zen.



Arrakastatsua izan zen saio hura. P. R.

'Herria kantuan' DVD bikoitza Alegiako Kultur Etxean jaso daiteke

ERREDAKZIOA

Joan den urteko ekainean Alegian *Herria Kantuan* emanaldia eskaini zuten, bertako Kultur Etxean eta herritarrek prestatua. Bada, jaialdi haren grabazioaren DVD bikoitzeko sortak kaleratu dituzte orain.

Kontua da, bere garaian DVD hauek eskuratzeko eskaera egin behar zela, kopia kopuru mugatua egiteko, eta eskatu zuten lagunek dagoeneko Kultur Etxean jaso dituzte DVD hauek.

Laburrak

Rallyesprinta prestatzeko probak egingo dituzte

AMEZKETA » Iurako Ikastolaren aldeko Il. Nañarri Rallyesprinta dela eta, «segurtasun neurriak direla eta eta derrigorrezkoa izanik», hainbat errepede mozketak egingo dituzte Amezketan. Errepidearen errekonozimendu saioak gaur eta bihar egingo dituzte eta 09:00etatik 17:00ak arte ariko dira. Proba hauek ibilgailu normalarekin egingo dira, ez lasterketako autoekin eta legez ezarrita dagoen abiadura gainditu gabe; ohiko egun batean baino trafiko gehiago nabari daiteke ondorioz. Rallyesprinta bere hileren 25ean izango da, gaur zortzi, hain zuzen. Gaur eta biharrez gain, ostiralean ere egingo dituzte probak.

Gaur, Eskolarteko Txirriindulartza proba

ALEGIA » Gaur 16:30ean hasita Alegiako Larraitz auzoan Eskolarteko txirriindulartzen proba hasiko da. Herrian barna ariko dira alebin, benjamin eta infantilen mailako txirriindulartziak, bakoitzak bere mailari dagokion distantzia egingez. Alegiako Langurre Txirriindulartza polita eta ona izan da guretzat. Atentzioa deitu dienen artean, bertako giroa izan zen.

Batzorde bileren gaien artean Kultur Etxe berria

AMEZKETA » Etzi, astelehena, Amezketa udaletxearen hirigintza-erretoretako batzordean izango da. 20:30ean hasita, gai nagusia Kultur Etxearen izango da. Izan ere, proiektuaren oniritzia eta honen finantzaketa plana eta kreditu eskaeraz ariko dira. Asteartean, berri, Kultura, ongizate eta ingurumena batzordea bilduko da, ordu eta leku berean. UEMAK aurkeztutako Osakidetzari buruzko mozioaz eta kirola bultzatzeko planaz ariko dira. Bilera hauek irekiak dira herritar guztiarentzat.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Furgoneta.** Volkswagen Transporterra salgai. Interesatuek deitu 646 48 88 77 telefono zenbakira.

LANA

■ **Garbitasunak.** Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 94 46 04 edo Itsaso: 695 70 82 71.

OPARITAN

■ **Txakurkumea.** Bi hilabeteko txakurkumea oparitzen dut. Gehiago jakiteko deitu 618 25 49 71 telefono zenbakira.



14°
7°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirola

■ **Alegia.** Eskolarteko txirridulari proba. Alebinak, infantilak eta benjaminak ariko dira 16:30ean hasita. Ibilbidea: Larraitz auzotik aterako dira, eskolatik pasa, Talles Garaino aldera, eta berriz Larraitz auzora.

Deialdiak

■ **Tolosa.** GASJE elkarteak objektu sexual gisa erabiliak diren eta beldurrerengatik hitz egin ezin duten haurren egoera salatzen Triangulon stand bat jarriko du 12:00etatik 14:00etara.

■ **Tolosa.** Mariano Arsuaga, Maria Cueto, Idoia Eloseggi, Iñaki Epelde, Miren Gonzalez, Nisa Goiburu, Koldobika Jauregi, Sukrū Karakūs eta José Luis Longaron Tolosaldeko artistek Kultur Etxeko fatxada muralez beteko dute, Naturaldia jardunaldien barruan.

Musika

■ **Tolosa.** Euskal Herriko Ikasleen Orkestraren kontzertua Leidor aretoan 19:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** *Hotel para perros* haur-errentzako filma bihar 17:00etan. *Slumdog millionaire* filma bihar, 19:30ean eta 22:30ean eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

■ **Villabona.** Gurea aretoan El curioso caso de Benjamin Button gaur 19:30ean eta 22:30ean eta bihar 19:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Bi argazki, bi errealitate. Maier Irazusta Saharar errefuxiatuen kanpamenduetara egin du bidaia Aste Santuan; Maitane, berriz, Soria aldera joan da eta bertan hotzarekin egin du topo.

Hotzaren eta beroaren artetik



SAHARAR ERREFUXIATUEN KANPAMENDUA

Sahara aldetik lehiaketara heldu den bigarren argazkia da hau. Oraingo honetan Maierrek bidaltzen digu eta argazkiari buruzko azalpentxo ere eman du: «Saharar errefuxiatuen kanpamenduetara egin dugun bidaiako argazkia da. Neskato hauei, ezerezaren erdian bizi badira ere, ez zaie aurpegiko irrifarra eta itxaropena sekulan kentzen; miresgarria». Arrazoirik behintzat ez zaio falta... MAIER IRAZUSTA



SORIA, CAYO MENDIA

Espainia aldean hotz egin du Aste Santuan. Horren adibide Ibarroko Maitanek bidali duen argazkia. Hauxe kontatu digu bere oporraldiari buruz buruz: «Soriako herri txiki batean izan gara, ostegunetik igandera. Herri txikia esaten dut, ze bertan 12 pertsona bizi dira neguan zehar. Eguraldia ez da oso bero izan baina, horrek ez digu inungo oztoporik jarri, herriatik gertu dagoen Cayo mendira igotzeko. Elurra goitik behera izan genuen bide guztian, baina gailurrera iritxi ginenean erabat harrituta geratu ginen. Gailurrean ez zegoen elurrik, izotza besterik ez! Horren arrazoia luzagarrizko haizea zen!». MAITANE ZUBELDIA

Biharko zer,
eguraldi ona?

Pello Zabalen
Eguraldia beti airean liburuan

Eguraldia antzemateko sekretuak argituko dizkizu Pello Zabalen
Bitzako liburu naturalan ikasketako ekarri ditu
Pello Zabalen liburu honetara



Pello Zabala

"Soria mendia, zeren dagozko produktua. Batek ez luke inik behar naturara eta eguzkiarekin, eguzkiak eta izotzak, zabal natura, zabal bidea produktua gabe"

Babeslea

kutxa

AUKERA EZAZU,
BIZI EUSKARAZ
berria

A Agurrak



Urte askoan!

Egoi Agirrezabala Balerdi (Alegia).
Gaur 3 urte. Zorionak potxolo!
Muxu handi bat etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAREN egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAREN egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak